

Gure elkarteak, kalean bizi diren pertsonen zuzenduta dago, egoera larri batean bizi dira, hala nola, egoera pertsonala eta langabezia bezalako arazoengatik, baita haien arteko elkareraginaren ondorioz, egoera oso zaurgarria bilakatu da, horregatik, burutuko dugu proiektu hau. Maslow-en piramidean oinarrituta, piramide honetan, giza motibazio eta beharrezko buruzko teoria azaltzen da, motibazio horietan lehentasun-mailak piramide bateko mailen antzera irudikatzen da. Maila beheagoko beharrezko batek lehentasuna du maila goragoko beste bati buruz, honek janaria, aterpea etab. izateari deritza eta ikerketak eginez, konturatu gara oinarritzako premiak ez direla asetzen, horretarako, kapsula batzuk eraikiko ditugu, gau hotzetan lo egiteko aukera izateko, gure zaintzapean.

Kapsularen bidez, kalean bizi diren pertsonen bizi-kalitatea bermatu nahi dugu, nahiz eta horrek ez izan konponbide luze eta iraunkorrik, etxebizitzaren problematika arautu arte egoera hobetzeko tresna izatea interesatzen zaigu.

Horretaz aparte, egunean zehar eguneko zentroak eskaintzen ditugu, haien eguneko errealitatean esku-hartze bat egiteko aukera izateko, hau da "gelatxo" horietan eguna pasatzeko aukera egongo litzateke; beste pertsonekin harremanetzeko eta bertan kaleko arrisku eta ekintzetatik hurruntzeko (hotza, gosea, drogak, loa, egon daitekeen segurtasun falta...) Planteatutakoa modu egokian garatzen dela bermatzeko, horren eboluzioa nola ematen den kontrolatuko genuke.

Gure enpresari dagokionez, nabarmentzen ditugun balioak, honako hauek dira:

Berritzaileak: Espainia mailan ez dago gure proiektua bezalakorik, hau da, lo egiteko kapsula bat ematea eta hortaz gain eguneko zentroa eskaintzea egunean zehar asetuta sentitzeko. Horregatik uste dugu gure proiektua orokorrean nahiko berritzailea dela. Gainera, denontzako bigarren aukera bat ematea ezinbestekoa da, aurreiritziak albo batera utziz.

Eskuragarritasuna: Herriaren erdian egongo dira eta denontzako eskuragarri baina behar bat benetan behar dutela erakutsi behar dute, hau da, gure zerbitzua kalean dauden pertsonentzat heltzen dela bermatzeko. Kasu askotan, pertsonak ezin dira hainbeste mobilizatu laguntzak lortzeko, horregatik erdiguneetan jarriko ditugu.

Arriskuaren murrizketa: Profil hauek duten arrisku nagusiak klimatologiarekin lotutakoak izaten dira, gure zerbitzuekin arriskuak murrizten dira kapsula hauen tenperatura egokituta dagoelako eta euri eta beste arrisku klimatologikoak saihesten dituelako.

Etengabeko hobekuntza eta pertsonalizazioa: Egiten dugunaren ebaluazioak egingo ditugu (ebaluazio taulak, helburuak jartzen eta jarraipenak eginez ia bete diren ala ez) eta horrela etengabe egokituko gara, gure akatsetik ikasiz. Bakarkako produktu bat denez, modu indibidual baten eta aurrerago gizarteratzaileekin modu pertsonalizatu baten ematen den zerbitzua izango da. Pertsona bakoitza desberdina da, horregatik ezin dugu programa finko bat egin; moldatu behar gara.